


## KOSTUAK

### HASIERAKO INBERTSIOA:

Hasteko, txipak gordetzeko leku egokia behar izango dugu. **Biltegiaren alokairua** (2500€), **fidantza** (5000€) eta **asegurua** ordaindu beharko genituzke (600€ urtero).



Biltegiak gain, **bulego** bat beharko dugu lan egiteko eta enpresaren gaiak eramateko. Bulego hori **alokatzea** 1.000 € kostatuko zaigu, haren **fidantza** 2.000 € izango da eta, azkenik, bere **segurua** 500 €-koa izango da.

Horrez gain, **Merkataritza Erregistro**ra joango gara, izen bereko beste enpresa bat dagoen jakiteko. Ondoren, sozietatearen estatutuetan sartuko dugu izena, eta **notario** baten aurrean erregistratuko dugu. 1.000 € kostatuko zaigu.

Biltegia eta bulegoa ditugunean, lan egiteko **altzari** eta **bulego-material** egokiak erosi beharko ditugu; 1.000 € kostatuko zaigu bakoitzeko, hau da, 4.000 € guztira.

**Ekipamendu informatiko** bat erosiko dugu, enpresa kudeatzeko ordenagailuak beharko baititugu, eta 7000 € kostatuko zaigu.

Gure enpresak denda fisikorik ez duenez eta online bakarrik saltzen ditugunez produktuak, **informatika-ekipo** bat izango dugu webgunea eguneratu eta eramaten ahal izateko. Enpresa informatiko bat kontratatzea 6.000 € kostatuko zaigu. Gainera, gure enpresaren hasieran erosten dugun **bilgarri**atik ordaindu beharko dugu; txipak ez ditugu denda fisikoan saltzen, online baizik, eta txipak kutxetan sartuta, zigilatuta eta entregatu behar den helbidearen zigiluarekin etorri behar dira. Material hori guztia 200 € kostatuko zaigu.

Hasierako **publizitate-kanpainatik** ere ordainduko dugu; kanpaina hori baliagarria eta beharrezkoa izango da enpresa ezagutarazten hasteko. Hori 3.000 euro inguru kostatuko zitzaigun. Azkenik, **salgaia** ordainduko dugu, salduko ditugun txipak. Prezioa kopuruaren araberakoa izango da. Gure salgaia bezeroei helarazteko, **garraio-enpresa** bat kontratatuko dugu, SEUR, eta 6000 € kostatuko zaigu.



## KOSTUAK:

Enpresa martxan dagoenean, gastu batzuk ordaindu beharko ditugu.

### → KOSTU FINKOAK:

<b>Zerbitzu-kostuak</b>	Ura, argia eta elektrizitatea	300€ hilabetero (100€ bakoitza)
<b>Alokairuak</b>	Biltegia eta bulegoak	3000€ hilabetero
<b>Nominak</b>	Informatikako langileak	Hilean 1200€ langile bakoitzarentzak
<b>Gestoria</b>	Nominak egitea	200€ hilero
<b>Publizitatea</b>	Publizitate-kanpaina (bezeroak motibatzeko)	700€ urtero
<b>Zergak</b>	BEZ eta SZ. Gizarte erantzukizun bat egitean, SZren diruaren zati bat deskontatuko zaigu (hobaria)	Diru kopurua aldarorra izan daiteke.
<b>Enpresaren kuota</b>	Gizarte segurantzza	Enpresak bere langileengatik ordaindu behar duena da.
<b>Kanpoko prebentzio-zerbitzua</b>	Enpresaren prebentzio eta arrisku baldintzak betetzen direla gainbegiratzea.	400€ urtero
<b>Garbiketa zerbitzua</b>	Bulegoa eta biltegia garbitzea	3000€ urtero

**→ KOSTU ALDAKORRAK:**

<b>Saltzen ditugun txipak</b>	Biltegian dauden txipak saltzen joango dira bezeroek gure produktuak erosi ahala. Segurtasun-stockera iritsitakoan, enkargu hau egingo dugu. Eskatutako txip-kopuruaren arabera, prezio bat edo beste aterako zaigu.
<b>Eskaeraren paketatzea</b>	Txip horiek kaxetan sartuko dira. Bukatzerakoan ere berritu egin beharko dugu bilgarria.
<b>Garraioa</b>	Hori guztia, bezeroak eskaera egiten duenean, bezeroarengana eramango da; beraz, garraioaren zenbatekoa ere ordaindu beharko dugu.